



2008an hainbat obra abiatuko dira

Aurten, hainbat hobekuntza lan abiatzeko asmoa dago Altsasun: Nafarroako Gobernuak Lau Urteko Planean (2005-2008) onartu zituenak. Planari jarraituz lanen aurrekontuaren %70 Nafarroako Gobernuak ordainduko du, gainerakoa, 1,5 milioi euro, Altsasuko Udalak.

Aurreikusita dauden lanak ondokoak dira: ur-horniketa eta

saneamendu sareen berritzea, eta zoladura berria jartzea ondoko kaleotan: Intxostia eta Alzania kaleen arteko gunean, Pilotalekuko zeharkalean, San Juan kalearen bukaerako zatian eta Felix Arano eta Geltoki auzoan.

Geltoki auzoko saneamendu sarea Urdiaingo araztegiarekin lotuko dute. NILSarekin lortutako hitzarmenari esker in-

gurumen arazo zahar bat konpondu ahal izango da. Horrela, lanak bukatutakoan, Geltoki auzoko saneamendu urak ez dira Alzania ibaira ixuriko. Lanen inbertsio osoa NILSaren kontu egingo da.

Lan hori bukatu eta gero, asmoa da Ibarreako industrialdeko saneamendu-sarea irtenbide honekin lotzea.

AURKIBIDEA/ ÍNDICE

Gaurkotasuna/actualidad 2

Udal batzordeak, helburuak eta lehentasunak/ Comisiones municipales, objetivos y prioridades 3-7

Udal taldeak/ Grupos municipales 10

Berriak/Noticias 11

Elkarrizketa/Entrevista 12

**ALTSASUKO UDAL
ALDIZKARIA /
REVISTA MUNICIPAL
DE ALSASUA**
nº 10. zk.

2008ko urtarrila enero 2008
Argitaratzailea / editor:
ALTSASUKO UDALA
Garzia Ximenez z/g ALTSASU
Lege gordailua: NA-945/2004

Numerosas obras previstas para 2008

Altsasu tiene previsto iniciar en 2008 diferentes obras que en su día fueron incluidas por el Gobierno de Navarra, a petición del Ayuntamiento, en el Plan Cuatrienal de Infraestructuras Locales 2005-2008. En virtud de dicho Plan, el 70% de la financiación de las mismas corre a cargo del Departamento de Administración Local, debiendo el consistorio hacer frente al 30% restante.

La obras previstas comprenden la renovación de redes, abastecimiento, saneamiento y pavimentación y afectarán a las zonas comprendidas entre las calles Alzania, Travesía Intxostia y Avenida del Frontón; el final de la calle San Juan y la calle Félix Arano/barrio de la Estación. En el caso de San Juan, por su condición de travesía, interviene también el De-

partamento de Obras Públicas en su financiación. El montante de la aportación municipal asciende a una inversión de alrededor de 1,5 millones de euros.

Resolviendo un problema medioambiental histórico

El Ayuntamiento, además, ha llegado a un acuerdo por el cual la empresa pública NILSA financiará el 100% de una obra complementaria sumamente importante para la construcción de una red de saneamiento que posibilite la conducción de las aguas desde el tramo final de la c/ San Juan y Félix Arano, en este último caso pasando por debajo de la autovía y mediante la

construcción de una estación de bombeo hasta el emisario de aguas fecales. Este emisario, titularidad de NILSA, es el que conduce todas las aguas residuales de Alsasua hasta la depuradora de Urdiain y se encuentra situada paralelamente a la N-240 en la parte sur del pueblo.

Con ello se resuelve en la parte urbana un problema medioambiental histórico de Alsasua poniendo fin al vertido al río Alzania de las aguas de estos barrios conforme a la solución planteada por NILSA en un estudio realizado en 2003. Una vez construida esta infraestructura llegará la hora de acometer el saneamiento de Ibarrea conduciendo las aguas residuales de las empresas que actualmente vierten al río hasta ese emisario.

Reanudación de las obras de urbanización del sector 3 "Santo Cristo de Otadia"

Tras proceder al ajuste del importe del contrato con la adjudicataria AZYSA el pasado Otoño - asunto pendiente desde la pasada legislatura - el Ayuntamiento de Altsasu ha reiniciado los trabajos de urbanización del futuro barrio residencial de Santo Cristo de Otadia. El costo final de las obras, a falta de la liquidación definitiva, asciende a 2,9 millones de euros.

Así, a partir del 7 de enero la empresa tiene un plazo de dos meses para la pavimentación y adecentamiento de los viales y aceras, trabajos que se desarro-

llarán simultáneamente con los de las constructoras que en este momento se hallan levantando los diferentes bloques de pisos y unifamiliares en el lugar. En este sentido, previo al inicio de los trabajos se llevaron a cabo reuniones entre estas empresas (constructoras y urbanizadora) y el Ayuntamiento con el objetivo de que el desarrollo de las obras se produzca con los menores problemas posibles.

Tras finalizar con las obras de pavimentación pendientes se procederá a la

colocación del mobiliario urbano previsto para la zona así como a reponer los desperfectos habidos en la zona urbanizada desde la paralización de las obras.

El desarrollo urbanístico de Santo Cristo de Otadia esta posibilitando la construcción de numerosas viviendas de diferente tipología en un entorno residencial desahogado, con amplios espacios peatonales y zonas verdes. Alrededor de una treintena (el 15% del sector) serán protegidas.


Berriro martxan dira Otadiako urbanizazio lanak

Kontratuaren zenbatekoa egokitu eta gero, martxan dira berriro Otadiako lanak —arazoa aurreko legegintzalditik zetorren. Otadiako sektorearen urbanizazio lanak AZYSA enpresa ari daburutzen, eta jakina denez, bizitegi-auzoa eraikitzen ari da. Aldaketak tarteko, auzo horren urbanizazio lanen aurrekontua 2,9 milioi eurokoa da.

Urtarrilaren 7az geroztik 2 hilabeteko epea izango du enpresak kaleen zoladura eta espaloiak bukatzeko. Urbanizazio lanekin batera etxebizitza blokeak eta familiabakarrak eraikitzen ari dira. Hori dela eta, AZYSA, Udala eta etxebizitzak eraikitzen ari diren enpresen artean zenbait bilera egin zituzten, lana ahalik eta hobekien antolatzeko eta batzuek besteei trabarik ez sortzeko.

Zoladura lanak bukatu eta gero, kaleko altzariez hornituko da auzo berria. Era berean, obrak eten zirenean jarrita eta hautsi ziren altzariak konponduko dituzte.

Otadiako urbanizazioan hainbat etxebizitza mota eraikitzen ari dira: familiabakarrak eta etxebizitza blokeak; baina beti ere, oinezkoendako gunee zabalak eta gunee berde askorekin. 30 etxebizitza (% 15) babestuak izango dira.



Kultura, Gaztedia eta Kirola Cultura, Juventud y Deporte

Batzorde burua/
Pdte. de la comisión:

IÑAKI MIGUEL



KULTURA

HELBURUAK:

• Kultur aniztasuna. Integrazioaren alde lan egitea, kultur trukaketaren bidez.

LEHENTASUNAK:

- Kulturaren Udal Kontseilua sortzea. Talde eta elkarten parte hartze zuzena kultur programazioan.
- Kultur taldeekiko lana estutzea eta hurbiltasuna bultzatzea. Herriko artistak eta kultur adierazpide guztiak bultzatzea.
- Euskarazko ikuskizunak berdintasunez programatzea.

GAZTEDIA

HELBURUAK:

- Gazte Informazio Puntuaren ezagutza bultzatzea, eta horren bitartez, gazteengan sexualitatearen, drogen eta interkulturalitatearen inguruko informazioa ahalbidetzea.
- Gazteen arteko harremanak ahalbidetzea.
- Adin tartea errespetatuz gazteendako ikuskizunak programatzea.
- Gazte Lekua sustatzea.

LEHENTASUNAK:

- Gazte plana martxan jartzea, abiatutako aktibitateak mantendu eta sustatu (Gozamenez kanpaina...).
- Baloreetan hezi. Gure ondareari eta ingurumenari begirunea sustatu, gazteek eurek antolatutako ekimenen bidez.

KIROLA

HELBURUAK:

- Zehatzak izan beharko dute, hau da, Altsasuko biztanleriari kirol jarduerak ahalbidetzea eta egungo instalazioak hobetzea (Dantzaleku, Burunda pilotalekua eta Zelandiko kiroldegia).
- Oinezkoendako eta txirrindulariendako ibilbideak prestatu eta seinaleztatzea.
- Patinodromoa eta erabilera anitzeko zelaia (tenisa, futbol 7...) egitea Zelandin.
- Adin nagusikoei zuzendutako jarduerak sustatzea.

LEHENTASUNAK:

- Zelandiko instalazio berria irekitzea.
- Udal instalazioen kudeaketa berbidetzea, irizpide profesionalak erabiliz eta udalaren ardurapean, kirol zerbitzuaren bidez.

CULTURA

OBJETIVOS:

• Pluralidad cultural. Trabajar a favor de la integración utilizando vías de intercambio cultural.

PRIORIDADES:

- Crear el Consejo Municipal de Cultura. Participación directa en la programación cultural por parte de los grupos y colectivos.
- Trabajar por la colaboración y acercamiento entre los grupos culturales. Impulsar a los artistas y a todas las formas culturales locales.
- Programar con igualdad espectáculos en euskara.

JUVENTUD

OBJETIVOS:

- Dar a conocer el Punto de Información Juvenil, y por mediación de éste que los jóvenes accedan a información sobre sexualidad, drogas e interculturalidad.
- Posibilitar la relación entre las personas jóvenes.
- Organizar espectáculos para la juventud, respetando los intervalos de edad.
- Impulsar el Gazte Leku.

PRIORIDADES:

- Poner en marcha el Plan de Juventud, y mantener y promocionar la actividades en curso (campaña Gozamenez...).
- Educar en valores. Promocionar el respeto por el patrimonio y el medioambiente por medio de actividades organizadas por los jóvenes.

DEPORTES:

OBJETIVOS:

- Son concretos: organizar y ofertar actividades deportivas para los habitantes de Alsasua y mejorar la infraestructuras existentes (Dantzaleku, frontón Burunda y polideportivo Zelandi).
- Preparar y señalar recorridos peatonales, para peatones y ciclistas.
- Construcción en Zelandi de un patinódromo y una pista de usos múltiples (tenis, fútbol 7...)
- Promocionar actividades para las personas mayores.

PRIORIDADES:

- Apertura de las nuevas instalaciones deportivas de Zelandi.
- Reorganizar la gestión de las instalaciones deportivas utilizando criterios profesiones a través del servicio municipal de deportes.



Ya están equipadas las nuevas instalaciones deportivas.



Hirigintza, Etxebizitza, Lanak eta Zerbitzuak Urbanismo, Vivienda, Obras y Servicios

Batzorde burua/
Pdte. de la comisión:

**JUAN MIGUEL
PÉREZ HURTADO**



Hirigintza, Etxebizitza, Lanak eta Zerbitzuen batzordeak legegintzaldirako dituen helburuak zerrendatuko ditugu. Lanik gehienak, 2008. urtean bideratuko dira. Hona:

1. Hiru Urteko Plana: Felix Arano (beronen finantziarioa plan finantzarioan onartuta dago) Nafarroako Gobernuak (NG) %70eko diru-laguntza eskainiko du.
2. Hiru Urteko Plana: erdigunea (beronen finantziarioa plan finantzarioan onartuta dago) Nafarroako Gobernuak (NG) %70eko diru-laguntza eskainiko du.
3. Hiru Urteko Plana: San Juan kalearen bukaera (beronen finantziarioa plan finantzarioan onartuta dago) Nafarroako Gobernuak (NG) %70eko diru-laguntza eskainiko du.
4. Hiru Urteko Planaren ondoko zatia (120.000 euro, plan finantzarioaren arabera, hasiera batez, Udalak osotasunean finantzatu beharko du)
5. Mojen eraikina birgaitzea, Musika Eskola eraikitzeko (Estatuak %100ean finantzatuko du)
6. Musika Eskolaren ekipamendua.
7. Navarra Villoslada eskolaren birgaitzea, 0-3 urteko haurtzaindegia ezartzeko.
8. Zelandi urbanizatzea (urbanizazio-kargarekin finantzatua).
9. Otadiako urbanizazioa.
10. Lezaldeko urbanizazioa (urbanizazio-kargarekin finantzatua).
11. Lezaldeko euri-urak husteko sarea egitea.
12. Zumalakarregi plazako aterpeak konpontzea.
13. Udaletxean igogailua jartzea (ezinduak udal-erretxeko solairu guztietara iristeko)
14. Kaleen garbiketa eta fatxadaren garbiketa sektoreko enpresaren bati esleitzea.
15. Hirigintza arloko udalaren lantaldea handitu (hirigintza espediente eta lanen jarraipena, behaketa eta kontrola eramateko).
16. Kaleak konpondu eta asfaltatzea (batz bestea 150.000 euroko aurrekontua).

Objetivos de la Comisión de Urbanismo, Vivienda, Obras y Servicios para la presente legislatura. La mayoría de las obras, serán ejecutadas durante el año 2008

1. Plan Trienal: Felix Arano (con la financiación aprobada en el Plan Financiero), el Gobierno de Navarra (GN) asume el 70%
2. Plan Trienal: zona centro (con la financiación aprobada en el Plan Financiero), el GN asume el 70%.
3. Plan Trienal: final de la calle san Juan (con la financiación aprobada en el Plan Financiero) el GN asume el el 70%.
4. Tramo anejo a Plan Trienal (120.000 euros que en principio debería financiar el Ayto al 100%, conforme a Plan Financiero).
5. Rehabilitación del edificio de Las Monjas para la construcción de la Escuela de Musica (financiado al 100% por el Estado).
6. Equipamiento de la Escuela de Música.
7. "La remodelación del Colegio "Navarro Villoslada" para la ubicación de la guardería de 0 - 3 años.
8. Urbanización de Zelandi (financiado con cargas de urbanización).
9. Urbanización de Otadia.
10. Urbanización de Lezalde (financiado con cargas de urbanización).
11. Obra de evacuación de pluviales de Lezalde.
12. Arreglo y reparación de los Porches de la Plaza Zumalacarregui.
13. Colocación de un ascensor, en el Ayto. (para que las personas con discapacidad, puedan acceder a todas las dependencia municipales).
14. Adjudicar la limpieza viaria y la limpieza de fachadas a empresas del sector.
15. Ampliación del equipo técnico municipal en el área de Urbanismo (seguimiento, vigilancia y control de las obras y expedientes de urbanismos).
16. Reparación y asfaltado de calles (presupuesto estimado de 150.000 euros).



Ogasuna eta Aurrekontuak Hacienda y presupuestos

AURREKONTUAK

2008ko aurrekontuak prestatzea da gure lehendabiziko betebeharra urteko garai honetan. Udaleko sail guztiei eskatu diegu heldu den urteko aurreikuspen ekonomikoak egitea.

Gure asmoetako bat da, gastu arrunta, epe ertain batera, bideragarria den muga batekin ez pasatzea, horrela, aurreikusita daukagun inbertsioei aurre egin ahal izango diegu.

ZERGA ETA TASEN EGUTEGIA

Zerga, tasa eta prezio publikoak kobratzeko egutegia zehaztu dugu eta familia bakoitzari helaraziko zaio. Horrela, altsasuar guztiek jakingo dute noiz, zer eta nola ordaindu kontribuzioa, ibilgailuen gaineko zerga, ura... eta beste.

2008 ekitaldiko prezio publikoak %3,4ko igotza aplikatuko zaie, Nafarroako Gobernuak ezarritako KPIa, hain zuzen ere.

BARNE AZPIEGITURAK HOBETZEN

Udaleko alderdi guztien geletan ordenagailu bana jarri dute, talde guztiek informazioa eskura izan dezaten. Lan tresna berri horrekin, beraz, paper gutxiago gastatzea espero dute. Ordenagailuekin batera, sarean dagoen inpresora bat ere jarri dute, eta papera txikitzeko makina bat ere.

PRESUPUESTOS

En estos momentos estamos preparando los presupuestos para el ejercicio del 2008. Hemos solicitado a todas las áreas del Ayuntamiento las previsiones económicas que tienen.

Uno de nuestros objetivos es mantener el gasto corriente dentro de unos límites soportables a medio plazo para acometer las inversiones previstas.

CALENDARIO DE IMPUESTOS Y TASAS

Hemos elaborado un calendario para el cobro de impuestos, tasas y precios públicos, que será buzzoneado a toda la población. De esta forma todos los alsuarras sabrán con antelación en qué fecha se cobrará la contribución urbana, impuesto de circulación, vados...

Mediante acuerdo de pleno se ha aprobado un incremento en los tipos impositivos, tasas y precios públicos para el 2008 del 3,4%, equivalente al IPC de Navarra.

MEJORANDO LOS MEDIOS TÉCNICOS

Con el fin de mejorar las herramientas de trabajo de los grupos políticos del Ayuntamiento, se ha instalado un ordenador en cada despacho. De ésta forma los concejales tendrán la información puntual y a mano. Se prevé una disminución en papel. Además de los ordenadores, se ha instalado una impresora en red y una destructora de papel.

Batzorde burua/
Pdta. de la comisión:

**Ma CARMEN OTAEGUI
SAEZ DE MATURANA**



Antolaketa eta Giza Baliabideen Batzordea Comisión de Organización y Recursos Humanos

Batzordean jakitun gara administrazioak ez duela behar bezala funtzionatzen. Udala ongi ezagutzen dut eta iritzi horrekin bat nator.

Lan egiteko modua aldatzea zaila den arren, nire lehenengo helburua da zerbitzua hobetzeko ahal den guztia egitea. Horretarako ondoko helburu hauek finkatu ditugu:


1. Bizilagunek udalari buruz duten iritzia aldatzea: ona izatea.
2. Biztanleenganako zerbitzu hobea eskaintzeko garrantziaz jabetzea Udal langileak.
3. Horretarako, beharrezkoak diren azpiegitura eta giza-baliabideak jartzea.
4. Azpiegitura eta giza-baliabideak hobeto antolatu hiritarrak zerbitzuarekin pozik egoteko, harrera eraginkor, azkar eta praktikoa batekin. Hori lortuz gero, pozik egongo gara, baita hiritarrak ere.

En la comisión somos conscientes de la opinión generalizada de que la administración no funciona: que el servicio que se presta desde el Ayuntamiento no es lo suficientemente ágil y eficaz. Cambiar inercias es muy complicado pero, a pesar de ello, nuestro primer objetivo tiene, y lo vamos a intentar, que cambiar esa opinión. Y por eso nos proponemos:

1. Lograr que la opinión y valoración de las vecinas y vecinos sobre el Ayuntamiento sea positiva.
2. Concienciar al personal del Ayuntamiento hacia un mejor servicio a la población.
3. Dotar al ayuntamiento de los medios y de las personas necesarias para ello.
4. Optimizar todos los recursos, medios y personas de modo que la satisfacción de la ciudadanía sea positiva, correspondiendo a una atención correcta, eficaz, rápida y práctica. Si lo conseguimos, nos daremos por satisfechos y los vecinos y vecinas también.

Batzorde burua/
Pdte. de la comisión:

**MARIANO GARCIA
GARRANCHO**



Heziketa eta Emakumea Educación y Mujer

EMAKUMEAREN BATZORDEA: Laster jarriko da martxan Aukera Berdintasun Plana. Hori posible izango da bertan lanean aritu diren taldeei esker.

Une honetan gure eskuetan dago hausnarketa prozesuaren eta konpromisoen txostena. Txosten hori AECUO kontsultoriak egin du.

Altsasuko gizon eta emakumeendako aukera berdintasunerako lehenengo plana da, 2007-2011 urte bitarterako. Egitasmo horretan jasotzen dira udalak urtez urte bete beharko dituen konpromisoak.

Lan mundua eta familia mundua bateragarri egitea, berdintasunean aurrerapausoak ematea da. Horretan, gizarte guztiaren parte hartzea behar da.

Gaurko gizon eta emakumeek lan egiten dute, seme-alabak dituzte, kasu egin behar zaion etxe bat, baliteke adineko pertsonak ere izatea; batzuetan, familieren edo lanaren artean hautatu behar da. Eta gehienetan, erabakia etxean gelditzea bada, emakumeak izaten dira lana

uzten dutenak. Kontzientziazioa, heziketa eta erantzukidetasun formulak bilatzen ditugu.

Altsasuko Udalak lan mundua eta familia bateragarri egiteko modua ikusi zuen Udan Euskaraz-ekin. Iaz lehenengo urtea izan zen eta aurten ere Gabonetan martxan jarriko da 'Bateragarria, Diber-tigarria' programa. Aste Santurako beste eskaintza bat egin nahi dugu.

Tratu txarren gaiak kezka handia sortzen du Emakumearen batzordean. Baliabideak geroz eta handiagoak dira, baina hiltzen diren emakumeen kopuruak gora egin du. Orain, doaneko telefono zenbaki bat dago, 016, berau ez da Telefonikako fakturan agertzen; espero dezagun baliagarri izatea.

Helmugara iristeko bide asko gelditzen den arren, espero dezagun egiten diren ekintzak zerbaitetan lagungarri izatea, hala nola: sentsibilizazio kanpainak, salaketak, 016 telefonoa eta tratu txarrak eragiten dituztenen kontrako tolerantziarik eza.

Batzorde burua/
Pdta. de la comisión:
M^a JOSE NOTARIO



HEZIKETA: Dagoeneko prest dago 0-3 urteko haurtzaindegia egitasmoa. Al-daketa batzuk egitea baino ez da falta. Gure nahia da legegintzaldi honetan lanak bukatzea.

Musika eskola Estatuko Gobernuak finantzatu du %100ean. Lorpen handia da hori. Udalean daramagun denbora ikusita, gauzak martxa onean doaz. Gure asmoa da legegintzaldi bukaeran helburu guztiak betetzea.



Altsasu-Ekuador kultur arteko jaia egin zen abenduaren 23an Mojen soinketa lekuan.

COMISIÓN DE LA MUJER: Gracias a los colectivos que han trabajado en la elaboración del Plan de Igualdad de Oportunidades, por fin, está a punto de ponerse en marcha.

En estos momentos está en nuestras manos el informe presentado por la consultoría AECUO sobre el proceso de reflexión y adquisición de compromisos.

Este es el primer plan de igualdad de oportunidades para mujeres y hombres de Alsasua 2007-2011. Un plan que implica programas anuales por parte del ayuntamiento, compromisos a cumplir.

La conciliación laboral y familiar es otro de los temas que afectan a que esa igualdad sea efectiva, y esto nos implica a toda la sociedad.

Los hombres y mujeres de hoy trabajan, tienen hijos e hijas, una casa que

atender, quizás personas mayores a su cargo y muchas veces hay que elegir entre atender las necesidades familiares o seguir trabajando. Si la opción es quedarse en casa para atender problemas familiares, quien renuncia generalmente a su trabajo es la mujer. Buscamos fórmulas para la concienciación, la educación y la corresponsabilidad en todos los ámbitos.

Desde el ayuntamiento de Alsasua se comenzó con una pequeña fórmula para conciliar esa vida familiar y laboral con el Udan Euskaraz. El año pasado y este se seguirá con una campaña en Navidad "Concilia Divirtiendo" y esperamos realizar otra en Semana Santa.

Dentro de la comisión de la mujer nos preocupa, y mucho, el tema de los malos tratos. Se ponen medios, pero el número de mujeres muertas sigue aumentando. Ahora tenemos un medio más, espere-

mos que sirva de algo, es el número de teléfono gratuito 016, un teléfono que no se refleja en la factura telefónica.

Aunque nos queda mucho camino por recorrer en este tema, esperemos que con las campañas de sensibilización, las denuncias, el teléfono, la tolerancia 0 a los maltratadores sirva de una vez para algo.

EDUCACIÓN: El proyecto de la guardería de 0 a 3 años ya está preparado. Solo faltan algunas modificaciones. Esperamos que en esta legislatura esté concluida.

La escuela de música se ha subvencionado al 100% desde el Gobierno central. Otro logro. Para llevar unos meses en el nuevo ayuntamiento creemos que las cosas marchan bien. Esperamos terminar la legislatura con todos nuestros objetivos cumplidos.

Osasuna, Gizarte Ongizatea eta Elkartasuna Sanidad, Bienestar social y Solidaridad

Batzorde burua/
Pdta. de la comisión:
M^a JOSE NOTARIO

Aurrera ateratzen ari dira legegintzaldiaren hasieran ilusioarekin planteatu genituen zenbait ekintza. Hala nola, Aita Barandiaran zaharren egoitzako lorategia. Lorategiko lana burutu dute Oinarrizko Zerbitzuen Mankomunitateko enplegu babestuko langileek.

INMIGRAZIOA: abenduaren 23an kultur arteko ekimen bat burutu zen Mojen gimnasioan. Altsasuko Ekuatoriarren elkarteko kideek azaldu zituzten haien seme-alabekin Eguberria nola ospatzen duten eta guk haiei gure ospakizuna azaldu genien.

Pasadizokoen etxe: Aterpetxea oso egoera txarrean dago. Aurten egin ahal izango dugun gauza bakarra ezinbestekoa zen materiala (izarak, koltxoia...) erostea izan da. Heldu den urtean indar guztiak batuko ditugu Kamineroen etxeetako batean aterpetxe duin bat egiteko. Horretarako, Nafarroako Gobernuak Kamineroen etxeetako bat utzi beharko digu.



Cinquera herriko haurrak eskolan.

ELKARTASUNA: Gobernu kanpoko (GK) lau erakunderekin hitzarmenak sinatu dugu aspaldi honetan. Haietako batek El Salvadorreko Cinquera herrian lan egiten du. Hango alkatea abenduaren 22an egon zen bisitan hemendik bidaltzen zaien diruarekin zer egiten duten azaltzeko.

OSASUNA: Gai honekin buletin osoa bete genezake. Argi eta garbi dago gure herrian ditugun gabeziak zeintzuk diren. Guztiok dakigu zeintzuk diren gabeziak, Nafarroako Gobernuak izan ezik. Honakoak: langile eta azpiegitura falta, leku falta, Zainketa Intentsioetarako Unitate mugikorrik ez, espezialistarik ez, x izpi irakurgailurik ez... Aurrera joan beharrean, atzera goaz.

Maria Kutz osasun etxea eza gutzera etorri zen, baina egitasmoak hitzetan baino ez dira gelditu. Horrexegatik eskatu dugu Osasun Batzordea etortzea, osasun etxea zein egoeratan dagoen ezagutzeko. Espero dugu aintzat hartuko digutela eta haien balorazioa ezberdina izango dela. Hori gertatzen ez bada komunikabideetara jo beharko dugu ditugun gabeziak salatzeke, izan ere udal eta herri bezala ezin dugu onartu.



Fiesta intercultural Alsasua-Ecuador celebrada el 23 de diciembre.

Al comienzo de la legislatura nos planteábamos con ilusión algunas iniciativas que van saliendo adelante; como es el jardín de la residencia de ancianos Aita Barandiaran. Se ha realizado desde el empleo social protegido de la mancomunidad de servicios sociales.

INMIGRACIÓN: el 23 de diciembre se llevó a cabo un espacio de interculturalidad en el gimnasio de las monjas. Los miembros de la asociación de ecuatorianos que viven en Alsasua nos mostraron cómo celebran las navidades con sus hijos e hijas y nosotros les mostramos cómo lo hacemos aquí.

ALBERGUE DE TRANSEUNTES: El albergue está en muy malas condiciones, este año, lo único que hemos podido hacer

ha sido comprar el material que era imprescindible, colchones, sábanas... El año que viene será el año en el que pongamos todo nuestro empeño para que de una vez por todas el Gobierno de Navarra nos ceda una de las casas de los camineros para que las condiciones de nuestro albergue sean más dignas.

SOLIDARIDAD: Mantenemos convenios a largo plazo con cuatro ONGs. Una de ellas trabaja en el pueblo de Cinquera en el Salvador. Su alcalde vino el día 22 de diciembre para explicarnos qué hacen con el dinero que desde aquí se les envía.

SANIDAD: Sobre este tema podríamos llenar todo el boletín. Las carencias que tenemos en nuestro pueblo son cla-

ras y no son desconocidas para nadie, bueno sí, para el Gobierno de Navarra. Falta de personal, de medios, de espacio físico, de UCI móvil, de especialidades, de rayos, en fin que en vez de ir para adelante vamos para atrás.

Vino la consejera María Kutz a visitar el centro, pero todo se quedó en palabras, nada concreto. Por esa razón hemos pedido que venga la comisión de sanidad, para que vea las condiciones en las que se encuentra el centro. Esperamos que nos hagan caso y su valoración sea distinta. Si eso no ocurre tendremos que salir a los medios o donde sea preciso para denunciar las carencias que padecemos y que desde luego como ayuntamiento y como pueblo no podemos consentir.

21 Agenda eta euskara Agenda 21 y euskara

EUSKARA: HIZTUN ARRUNTEN ETA NORMALTASUNAREN BILA

Euskara ez da folklorerako osagarri, edota haurrek "salbatu beharreko" hizkuntza.

Euskara, gaztelania bezala, edo bizitzeko tresna bihurtzen dugu, lehenago Altsasun eta Nafarroako eremu zabaletan izan zen bezala, edo folklore eta ekitaldi politiko-erritualeko apaingarri bizigabe eta astun izango da. Horregatik, ahalik eta hiztun eta eragile gehien erakarri behar ditugu euskara erabiltzeko jardunera. Eremu eta bazter guztietatik. Eta ekin, erabili, usatu, egin... Erabilerarik gabe alferrik baitira ekimen handiak eta txikiak, D ereduak eta ikastolak, manifestazioak eta kantaldiak.

Noski, erabili ahal izateko erraztasunak eta baliabideak eman beharra dago, eta horretan ahalmen eta ardura handia dute udalek, eta ardura horri aurre egin behar diote ezinbestean. Horretarako funtsezkoa da baliabide nahikoak jartzea, jarduna antolatzea eta euskararen berreskurapenean lan egiteko prest dauden guztiak auzolana antolatzea.

Bide horretan, normalizazio plana behar dugu udaletxean eta herrian, eta plana egoki garatu ahal izateko aldeko giroa eta jarrerak landu beharko ditugu, elkarlana sustatu eta zabal jokatu, gu-

re errealitatea oinarri beti ere.

Normaltasuna, koherentzia eta helburu eskuragarriak, behar beharrezkoak ditugu euskarari berriz ere leku egingo badiogu gure herrian. Eta euskaldunok egin beharko dugu bulka batez ere, inork ez baitiugu ezer emango opari.

21 AGENDA: PARTE HARTZEA SUSTATZEA HELBURU

Behar bada, herritar asko ez da jabetzen udaletxean hartzen diren erabakien garrantziaz. Guztion bizimoduan erabateko eragina duten erabakiak hartzen dira hemen, aldiro-aldiro. Erabaki horiek hemen gaudenok hartzen ditugu, noski, geure muga guztiak eta baliabide urriekin. Lan orduz kanpo, gaiak ahal bezala aztertuta eta askotan epe motzen edo kanpoko eragileen presioaren menpe. Udalean, legegintzaldiak joan etorri, aurpegi bertsuak hainbestetan errepikatuta ikusteak zer pentsatua ematen du. Ordezkarik garen askoren prestakuntza mugatuak, ere bai.

Nork eta nola erabakitzen du poligonoa egin behar denentz? Kaleen diseinua nolakoa behar duen? Zenbat etxebizitza eraiki behar den? Herritarrok arreta gehiago jarri behar genuke horietan guztietan, gehiago inplikatu (zuzen-zuzen eragiten digulako, besteak beste), eta ordezkaririk prestuenak aukeratu, baina

azken horretarako, beharbada, ordezkarik horien jardun baldintzak hobeto beharko lirateke, udaletxera lanera doana, beste edozein lan duinetako baldintzak eskuratu arte, bederen.

21 Agendak parte hartzea bideratzeko batzordea izan behar du, batez ere. Herritarrek udal jardunean parte hartzeko bideak proposatuko dituen batzordea. Horretaz gain, Agendan bertan ezarritako helburuak betetzen joatea xede duen batzordea ere bai, dela mugikortasun plana, dela ingurumena babesteko ekintzak, eta beste. Baina lehen lehenik, parte hartzea sustatzeko eta herritarrei bidea emateko tresna izan behar du. Horretarako lanean ari gara.

Udal jardun parte hartzailea bermatzeko proposamen bat jarri dugu jada beste taldeen esku, egungo batzordeak irekitzeko xedez.

Izan ere, talde batzuek zailtasun gehiago izan ditzakete Legeek ezarritako baldintza formalak gainditzeko garaian, eta geuk luzatutako ordenantza proposamenak oztupo horiek gainditzeko tresna nahi du izan.

Batzorde burua/
Pdte. de la comisión:
JONJO AGIRRE



EUSKARA: EN BUSCA DE NORMALIDAD Y RESPETO

El euskara es la lengua más navarra de las tres (con el francés en Ultrapuertos) que se utilizan mayoritariamente en nuestra tierra, ya que es originaria de esta. Es además una de las lenguas europeas más genuinas, pero sus hondas raíces o su antigüedad no le van a devolver la vitalidad que siglos de discriminación le han arrebatado. Si no recuperamos al euskara como lengua de uso diario, como lo fue en Altsasu y en gran parte de Navarra hasta no hace tanto, no volverá a ser el idioma vivo que much@s queremos.

Pese a la política lingüística restrictiva y discriminatoria del gobierno de UPN, los ayuntamientos tienen la posibilidad de incidir decisivamente en la vida diaria y por lo tanto tienen una responsabilidad que no pueden delegar o ignorar.

En cualquier caso, deberemos impulsar la participación de tod@s: alcalde y concejales, personal del Ayuntamiento y servicios públicos en general, centros escolares y padres y madres, colectivos,



asociaciones, etc. etc... Para ello, tanto en el pueblo como en el Ayuntamiento necesitamos un plan de normalización lingüística que se apoye en un ambiente favorable y positivo.

Si queremos devolver su espacio al euskara, y que se garanticen los derechos lingüísticos de l@s vasco hablantes, hasta igualarlos con los de los/as castellano hablantes, necesitamos normalidad, coherencia, medios económicos, personal cualificado, y mayor respeto y comprensión por parte de la comunidad dominante, la castellano hablante. Pero sobre todo, los/as euskaldunes debemos ser quienes reivindicamos con la práctica diaria el espacio que nos corresponde, porque nadie nos va a regalar nada.

AGENDA 21: OBJETIVO, IMPULSAR LA PARTICIPACIÓN

Queremos conseguir unas relaciones mejores, más fluidas, entre las instituciones públicas y la sociedad; abrir las puertas de la política municipal a la ciu-

dadanía y lograr una intervención más directa y más activa de la sociedad y de sus organizaciones sociales en la vida municipal.

En nuestra opinión la desilusión se ha apoderado de grandes sectores sociales y cada vez es más evidente el distanciamiento entre política y ciudadanía.

Ante esta más que evidente crisis de nuestra "democracia representativa", la reivindicación y el ejercicio de la participación ciudadana en los asuntos diarios deben convertirse en uno de los componentes y ejes fundamentales de la política municipal. Entre otras cosas porque a l@s ciudadan@s nos conviene, y mucho, estar al tanto de las decisiones que se toman en las instituciones. Decidir si en nuestro pueblo vamos a construir un polígono y sus características, si vamos a construir viviendas y en qué medida, si nos vamos a dotar de zonas verdes o mejores servicios asistenciales, etc. etc, es demasiado importante como para dejarlo en manos de un grupo reducido de personas, o lo que sería pe-

or, al albur de lo que propongan determinados grupos de poder... El alejamiento de las instituciones y la política perjudica sobre todo al pueblo.

Por otra parte, además de llevar a cabo los objetivos que marca la Agenda 21 de Altsasu (plan de movilidad, acciones en defensa del medio ambiente, etc), esta comisión debe de ser la herramienta que garantice la participación de los colectivos ciudadanos en la gestión municipal.

Nosotr@s creemos imprescindible la participación social, y con este fin, hemos elaborado una propuesta de reglamento de participación para el Ayuntamiento de Altsasu, que regule los cauces y formas de participar activamente en la política municipal.

Tenemos labor por delante. Nuestra intención es que los vecinos y vecinas de Altsasua tengan información previa suficientemente completa y comprensible sobre todas aquellas cuestiones que nos afecten, sean proyectos urbanísticos, industriales o infraestructuras viarias, para entre todas y todos poder adoptar las decisiones correctas.

Ingurumen, Mendi eta Abeltzantza Medio Ambiente, Montes y Ganadería

Batzorde burua/
Pdte. de la comisión:
JONJO AGIRRE

"MONTES": Horixe da Ingurumen, Mendi eta Abeltzaintza Batzordearen goitizena. Horrela ezagun dute altsasuarrek. Horrek ere ematen du eman zaion trataeraren eta garrantziaren neurria.

Ingurumen batzordea behar du lehen-lehenik, mendiak eta abeltzaintza azpiatal direlarik. Ingurumenak behar du lehentasun osoa, herritarron bizi kalitateari eragiten dion eragilerik garrantzitsuenetakoa delako, eta beste 11 arazoirengatik. Eta bada lanik.

Adibidez, guztion konzientziak pixka bat esnaraztea eta gure inguruaren zaindari bilakaraztea, komeni zaigulako. Adibidez, erdi hilik daukagun Burunda ibaiari bizia itzularazteko neurriak hartzea. Adibidez, herrian berdegune gehiago sortzea, edo sortzen ditugun hondakinak murriztea, kaleak garbiago egon daitezten sentsibili-

zazio ekimenei ekitea, gure mendietako baliabide aberatsak zaintzeko eta hobeto kudeatzeko neurriak hartzea, eta abar luze bat.

Altsasu, inguru paregabearen kokaturik dago. Baso, mendi eta erreka ederrak dauzkagu inguruan. Baina sarritan, kanpotarrek estimatzen dituzte geuk baino gehiago. Hortik hasi beharko dugu, beharbada, geure herria eta inguru guztia gehiago estimatuzetik.

Burunda ibaiaren eta, oro har, gure uren nahiz airearen kutsadura nabariak dira. Kaleetako zikinkeria eta gutxi batzuen zarata-zalatasuna ere, kezkarriak dira. Zaborrontziak aldiro-aldiro erretzen dituztenen jardun penagarriak herritar guztioi egiten digu kalte.

Gure ingurua gehiago zaindu behar dugula uste dugu. Ingurumena zaintzeko ez bada, nork bere burua zaintzeko izan dadila.

"Montes": ese es el sobrenombre de la Comisión de Medio Ambiente, Montes y Ganadería.

Así es conocido por l@s altsasuarras, y esa denominación refleja el tratamiento y la importancia que se le ha dado hasta la fecha. No obstante, la comisión debe ser en primer lugar de Medio Ambiente, o cuando menos tanto como lo es de Montes y Ganadería.

El medio ambiente debe ser prioritario porque afecta directamente a nuestra calidad de vida. Hay mucho trabajo pendiente en este campo.

Por ejemplo, deberíamos sacudir las conciencias de l@s altsasuarras y convertirnos en defensores de nuestro entorno. Deberíamos tomar medidas para revitalizar el río Burunda, muy afectado por los vertidos; crear más zonas verdes en el pueblo; disminuir la cantidad de basura que producimos; tomar medidas para cuidar y mejorar la gestión de nuestros montes, cuidar más nuestras calles y plazas, y un largo etcétera.

Alsasua está situado en un paraje singular, entre dos parques naturales, rodeada de bosques, montes y ríos de gran belleza y valor natural que muchas veces son más apreciados por los foráneos que por l@s propi@s altsasuarras... y quizás deberíamos empezar por ahí, por apreciar más nuestro pueblo y nuestro entorno, cada vez más degradados.

No podemos dejar de mencionar la contaminación de nuestros acuíferos y la mala calidad del aire que respiramos. Tampoco queremos pasar por alto la suciedad perenne de nuestras calles y paredes o la adicción de algun@s vecin@s al ruido de los motores y a hacer demostraciones gratuitas de la potencia de sus coches y motocicletas en nuestras calles. O un hecho más lamentable aún, como es la quema de contenedores de basura, que algunos individuos parecen querer convertir en triste tradición, por lo que parece. Creemos que merece la pena prestar más atención a nuestro entorno. Si no es por civismo, que sea por egoísmo, por nuestra calidad de vida y nuestra salud.



Desde el Grupo Municipal de EAE-ANV, nos hemos marcado varios retos:

EL PRIMERO ES DE LA PARTICIPACIÓN: Para hablar de participación, primero tenemos que denunciar la situación que se vive actualmente en el ayuntamiento de Altsasu:

En primer lugar, el pacto de gobierno Nabai-PSOE deja fuera al resto de fuerzas de los órganos de gobierno, es un pacto basado en la exclusión, especialmente en la de EAE-ANV.

Y en segundo lugar, las comisiones informativas las han cerrado a los colectivos que hasta ahora venían participando (dicen que quieren regularlo).

Por nuestra parte propusimos y proponemos una junta de gobierno con presencia de todos los grupos para trabajar de forma conjunta y compartiendo responsabilidad.

En cuanto a las comisiones, seguimos reclamando que sean abiertas al tejido asociativo, para enriquecer los debates (los grupos deportivos sobre el pliego de gestión de las instalaciones deportivas, los culturales acerca del cambio de fecha de carnavales, los de Euskera en el Bai euskarari que quieren revocar...) y acercar la vida municipal a la ciudadanía.

Pero nuestra propuesta va mucho más allá, como ya expusimos en nuestro Herri Programa. Creemos que para fomentar la participación es imprescindible la transparencia en la gestión y facilitar la información al pueblo.

Para ello proponemos una serie de medidas concretas (paneles, asambleas de barrio, medios comunicativos...) que expondremos más extensamente en breve (ya que tenemos muy limitado el espacio en este boletín).

También proponemos las consultas populares como método para tratar temas de especial relevancia, con información, distintas opiniones que faciliten un verdadero debate social, y dando a la ciudadanía la palabra.

Desde EAE-ANV, como organización política de izquierdas, vamos a seguir planteando iniciativas que fomenten la participación. Consideramos que es un derecho de la ciudadanía.

Pero siendo conscientes de que el actual equipo de gobierno, por lo que estamos viendo, no lo va a poner fácil.



Idazkia eskatu zaion arren, ez du idatzirik prestatu.

No ha presentado ningún escrito.

Posicionamiento de IU y objetivos de trabajo

A pesar de estar excluidos por decisión de Nabai y PSN de las presidencias de comisiones y de la JGL, desde IU y con el compromiso de nuestro programa, estamos en disposición de continuar trabajando por y para Altsasu como siempre lo hemos venido haciendo. Los objetivos prioritarios son:

La escuela de música, el centro 0-3 años y el Gazteleku como pendientes de la anterior legislatura y comprometidos a su consecución en ésta.

Favorecer y facilitar la creación de viviendas de VPO y de alquiler para los más desfavorecidos; la creación urgente de un polígono industrial (Zanguitu-Kapitansoro-Dermao etc.) o donde el Go-

bierno de Navarra lo estime, sin perder más tiempo en aras al urgente desarrollo industrial de Altsasu y la Sakana.

Potenciar y adecuar el centro de salud a las necesidades reales de ahora, ampliando el mismo, aumentando la plantilla de acuerdo a las necesidades y ampliando el servicio de urgencias, y por último como tema estrella para los próximos meses, desde IU vamos a propiciar un debate serio y responsable con todos los organismos, ayuntamiento, sindicatos, grupos políticos del Parlamento de Navarra, mancomunidades...etc., para conseguir que el tren sea un elemento vertebrador de unión para toda Navarra con el menor costo económico y medioambiental para la unión

con la Y vasca a través del corredor de la Sakana por Altsasu, porque ya está construido. Porque se puede mejorar y adaptar a lo que se decida y porque el dinero público hay que gastarlo en las mejores condiciones y que repercuta en el 100 % de la población.

Arturo Carreño Parra,
Portavoz de IU





Estatuko aurrekontuetan Altsasuko musika eskolarako 1.345.515 euroko diru saila dago

Hala jakinarazi zuten Unai Hualdek, Iñaki Migelek, Juan Migel Perezek eta Maria Josefa Notariok azaroan eman-dako prentsurrekoan. Nafarroa Bai-ko eta Alderdi Sozialistako kideek adierazi zuten "poz handiz" jaso zute-la berria. Adierazi zuten, diru sail hori lortzeko koalizioak eta kongresu-ko talde euskaldunak PSOErekin izan-dako kontaktuen emaitza izan da.

Bi urte barru

Lortutako finantziazioarekin 2008an eraikineko bi solairuak egokitu ahal izango dira. Lanek 8 hilabete iraungo dute eta ikasleek eraikin berria 2009an mustuko lukete.

Egitasmoa

Konpasioko mojen eskolako izan ze-naren goiko bi solairuak hartuko ditu udal musika eskolak. Bigarren solai-ruan, udal musika eskolako lehena, ez-

karatza eta eraikineko bi hegaletara eramanez duten pasabideak izanen dira. Solairu horretan instrumentuak ikasteko 9 gela izanen dira. Haien ta-maina 15 eta 24 metro karratu bitarte-koak izanen dira, horrela tresna bakoit-zaren sonoritatara egokituko dira. Ho-rrekin batera solairu horretan musika hezkuntzako 4 gela (30 m²koak), liburu-tegi-fonoteka, atezainaren kabina, ad-ministrazio bulegoa, irakasle gela eta komunak izanen dira. Azken atal ho-riek erdialdean kokatuko dira.

Goiko solairuak ezkaratzaz gain ho-nako hauek hartuko ditu: balio anitze-ko entsegu bi gela (80 eta 150 m²koak); perkusioko instrumentuendako gela; zuzendariaren gela eta komunak. Az-ken horiek ezkaratza ondoan egonen dira. Entsegu gelek 4 metroko altuera izanen dute eta orkestra, banda edo ikasleen emanaldietarako egokiak izan daitezke.

En los presupuestos del Estado figura una partida presupuestaria de 1.345.515 euros para la escuela de música de Alsasua

En los presupuestos del Estado figura una partida presupuestaria de 1.345.515 euros para la escuela de música de Alsasua. Esto ha sido posible gracias a una enmienda del grupo vasco en el Congreso aceptada por el PSOE.

“Gracias a la subvención obtenida en el 2008 se podrán remodelar los dos pisos del edificio de las Monjas, y la nueva escuela de música será una realidad” explicó el alcalde, Unai Hualde. Las obras tendrán una duración de 8 meses, con lo que el nuevo edificio podrá estar en marcha en el 2009. De esta forma, una vez desalojada la actual escuela de música del edificio Navarro Villoslada, podrán comenzar las obras del centro 0-3 años tal y como estaban previstas para el 2009-2010.


La nueva escuela

El presupuesto de la remodelación asciende a 1.346.000 euros. Así, la nueva escuela contará con nueve aulas para instrumentos de diferentes dimensiones y adaptadas a la sonoridad y potencia exigida; cuatro salas de lenguaje musical; una biblioteca-fonoteca; dependencias para profesores y personal administrativo y salas de ensayo polivalente para que puedan hacer uso de ellas, además del alumnado, los diferentes grupos y colectivos musicales existentes en nuestra localidad.

Nuevo impulso para la Escuela de música

La escuela de música de Alsasua ha recibido varios impulsos que están mejorando el funcionamiento de la misma. Con la puesta en marcha de los nuevos estatutos, se han creado nuevos órganos, como por ejemplo el Consejo Escolar. Este órgano es muy positivo ya que se intercambian propuestas y opiniones entre las diferentes partes que forman la escuela, padres y madres, profesorado, alumnado y representante del Ayuntamiento. Además, el órgano directivo está formado por representantes de todos los grupos políticos.

Además de los cambios en la estructura y organigrama de la escuela, en estos momentos se está llevando a cabo la redacción del Proyecto Educativo de Centro (PEC), el plan pedagógico y reglamento interior.



“Estatutu berriekin organo berriak eratu dira, adibidez, Eskola Kontseilua”

Josu Estarrona Elizondo, Altsasuko Musika Eskolako zuzendari berria da. 26 urteko Gasteiztarra, zeharkako xirula irakaslea da.

Zenbat ikasle dago eskolan? 160 aurten; aurreko urtean, 250. Greba eta arazo guztien ondorioz, jaitsiera nabarmena izan da. Espero genuen, baina 90 baja asko dira.

Zenbat irakasle ari zarete lanean? 13 irakasle.

Zein dira Altsasuko Musika Eskolaren aurtengo helburuak? Aurtengo helburu oinarrizkoena izan da ikasturteari hasiera ematea. Kontutan izan behar dugu, iazko irakasleetatik bakarrik 3 gelditu direla eta gainerako guztiak kontratu berriak izan direla; frogak prestatu behar izan ditugu, tribunala ekarri... Lan handia izan dugu kurtsoa martxan jartzeko eta nik uste dut denbora gutxian egin dugula. Aurreko irakasleek esan zuten ez zutela jarraituko urriaren hasieran, eta kurtsoa urriaren erdi aldean hasi da.

Gainerakoan, ikasturtearen helburua musika irakastea da. Baina, aurten musika eskolaz kanpoko ekintzak egitea pentsatzen ari gara. Adibidez, eskolaz kanpoko kontzertuetara ikusle bezala joatea gure ikasleak; eta, otsailko kontzertua prestatzeko, asteburu bateko egonaldia. Egonaldiarekin, musika ikaskuntzaren motibazioa bultzatu nahi dugu, eta haurren arteko harremanak sustatu.

Estatutu berriak onartu dira. Zertan aldatzen da aurreko jarduna? Zer onurak ekartzen ditu? Egia esan, aurrekoak ez ditut asko ezagutzen, baina badakit estatutu berriekin organo berriak eratu direla, adibidez, Eskola Kontseilua. Onuragarria izango da, bertan entzungo baita gurasoen iritzia, ikasleen iritzia (bi 18 urtetatik gorakoak eta beste bi 14-18 urte bitartekoak) eta irakasleen iritzia ere. Eskola kontseilua lehenbailehen eratu behar izan dugu lan asko egin beharra dagoelako: aurrekontuak prestatu, eta Ikastetxearen Heziketa-Proiektua (IHP), plan pedagogikoa eta barne-erregulamendua.

Lan handia, beraz. Bai, zuzendari bezala, astean 8 orduko kontratua dut nik, baina, azkenean sartzen ditut 8 ordu egunero. Nik nahi nuke nire ikasle direnentzat gauza gehiago prestatzea, baina musika eskola osoan pentsatu behar dut. Lan handia dugu bai, baina ganoz egiten ari gara, ilusio handiarekin, oraingoz, bai.

Irakasleen lan baldintzak hobetu dira? Ditugun kontratuak 9 hilabetekoak dira, eta, noski, zerbait hobea aurkitzen duenak alde egiten du, eta, azkenean, hori guztia kaltegarria da eskolarentzat. Nik, momentuz, eskakizun horiek guztiak ez ditut jorratu nahi izan, lehen-tasuneko zelako kurtsoa martxan jartzea.

Aurten, eskatu dugu kontratu guztietan agertzea astebeteko ordu bat bileretarako, horrela, hilabetean bi klaustro egiten ditugu.

Irakasleok ahal dugun guztia egingo dugu,

baina udal ordezkariari lege onez jokatzeari esker diegu eta musika eskolan benetan pentsatzea, herri bateko bizitzan garrantzitsua baita musika eskola bat.

Aurten zein lanpostu deituko ditu Udalak? Ziurrenik bi lanpostuen deialdia egingo da, musika-hizkuntzako irakasleentzat.

Orain zertan ari zarete? Udalak eskatu digu Ikastetxearen Heziketa-proiektuaren aurre-proiektua abendurako aurkeztea. Gaia irakasleen klaustroan landu dugu eta azaroaren bigarren asterako aurkeztu beharko dituzte proposamenak. Aurreko zuzendaritza, udaran aritu zen horretan lanean, baina ez dute ezer entregatu udalarekin tira-birak dituztelako, hortaz, orain, zerotik hasi behar dugu.

Noiz hasiko dira musika eskola berriko eraikineren lanak? 2008ko aurrekontuetan jasotzen da musika eskola berrirako partida, eta proiektua dagoeneko emanda dago. Datorren ikasturterako ez dugu eraikin berria izango, baina 2009-2010erako igual bai.

Nola parte hartuko du Musika Eskolak herriko bizitzan? Gure asmoa da herriko musika taldeak musikariz hornitzea, bai banda, abesbatza, dantza taldeak, herriko rock eta pop taldeak... Izan ere, hurrengo ikasturteari begira rock eta pop musika espezialitatea jartzeko asmoa dugu, baita teknologia berria ere, informatika musikalerako ikasgaia (partiturak edizioa egiteko, grabazioak egiteko, musika elektronikoa egiteko...). Horixe da gure ideia.

Aurten zer kontzertu aurreikusi duzue? Santa Ageda bezperan, eskola guztia kalera aterako da eta festa egingo dugu. Otsailaren amaieran edo martxoaren hasieran, berriz, kontzertu handi bat egingo da Iortian eta, ekainaren 11n kurtso bukaerako kontzertua izango da.



MUSIKA ESKOLAKO ORGANIGRAMA:

ZENDARITZA BATZORDEA:

- Unai Uhalde, alkatea
- Josu Estarrona, zuzendaria
- Iñaki Miguel (Nabai)
- M^o Jose Notario (PSN)
- Raul Barrena (EAE-ANV)
- Arturo Carreño (IU-EB)
- Antonia Roman (UPN)

ESKOLA KONTSEILUA:

- Unai Uhalde, alkatea
- Josu Estarrona, zuzendaria
- Jose Olaizola, ikasketa burua
- Alaitz Ayala, idazkari akademikoa
- Nekane Vilariño eta Txetxu Etxabarri, gurasoen ordezkariak
- Ines Frances eta Amaia Amilibia, 18 urtetik gorako ikasleak
- 14-17 urte bitarteko ikasleen ordezkariak ez dago
- Mari Luz Zabala eta Belen Valencia, irakasleen ordezkariak
- Oihana Olaberria Jaka, irakasle ez diren langileen ordezkari

IRAKASLEEN KLAUSTROA

